





GURE ZUHAITZAK



*«Zuhaitza beti izan da gizakiaren babeste,
baita bere biktima ere»*

Julio Caro Baroja



Testuak euskaraz
Juan Manuel Etxeberria

Testuak gazielaniaz
Seve Calleja

Informazio teknikoa
Norberto Calleja

Diseinua eta marrazkiak
Jose A. Tellaetxe Isusi

Koordinazioa
Idazkaritza Nagusi Teknikoa

Argitaratzailea
Bizkaiko Foru Aldundia
Nekazaritza Saila



Baso-zaindariaren hamar aginduak

- 1 Ez nahasi inguruneak duen baretasuna
- 2 Jardun elkarlanean naturarekin
- 3 Kalterik ez eragin natur inguruneari
- 4 Errespetatu leku bakoitzak berez duen ordena
- 5 Saihestu izaki bizidunengan eragin daitekeen kalte oro
- 6 Gorde sekretuan ustekabeko aurkikuntzak
- 7 Bildu bisitatzen duzun leku bakoitzaren inguruko informazioa
- 8 Errespetatu jabetza landatarrak nahiz horien jabeak
- 9 Jardun erabakitasunez eraso ooren aurrean
- 10 Hobetsi basoko animalien eta landareen ongi-zatea zure gozamen pertsonalaren ginetik.



Aurkibidea

Haritza5. orr.

Haltza9. orr.

Pagoa12. orr.

Gaztainondoa16. orr.

Intxaurrondoa20. orr.



*Oinarri sendoan haitza
basoan zutik zuhaitza,
gizakiontzat babes lekua
gure betiko haritza.*

Haritza euskaldunontzat zuhaitz esanguratsuenetakoa da. Benetako sinboloa. Gernikako Arbolatik hasi, Luxaondoko Malato muga-haritz zaharrarekin jarraitu eta beste hainbat lekutako batzartokietako haritzetara heldu arte.

Gotzon Garateren atsotitzetara jota: *Haritz handiak, gerizpe handia*, errefracua aurkituko dugu era beharbada horrexegatik hartu izan dugu harizpea babesleku bezala gure historian. Harizdui asko ditugu gure Euskal Herrian eta euretariko asko eleiz inguruetan, hantxe biltzen zirelako gizakiak euren gauza eta ebatzietarako eta abereak euren abarorako.



Haritza era guztietako eraikuntza, altzari eta abarretarako erabili izan da bere zur edo egur gogor eta iraunkorrari esker. Etxea egin eta gero ere, sarrerako ate edo ate ondoan era askotako sinbo- loak jarri izan dira eta jartzen dira gaur egun ere. San Juan Haritza dugu euretariko bat. San Juan goizean, haritz txiki edo haritz-adar bat jartzen da etxeko sarrera aldamenetan, lorez, galburuz eta abarrez ornitua eta sinesmendunak gurutzetara zotz bat ipinita ere bai. Zertarako? Ba, etxea ere babesteko.

Kukuak ere zerikusia dauka haritzarekin. Uda- berrian haritza orrira datorrenean haritzondo ba- tzueta adarretan sagar antzeko batzuk sortzen dira eta «*kuku-sagarrak*» izenez ezagutzen dira, garai horretan kukua gure artean **kuku-hotsean** dabilelako Andramari martikotik hasi eta San Pe- droetara bitartean.

Abestietan ere sarri agertzen zaigu haritza. Bat aipatzekotan hauxe:



*Kanpo de Bolantingo
haitz harro baten
kukuak egin ditu
hamar ume aurten*

Mito edo eta esundetan ere hortxe daukagu gure haritza. Aikomen esaunda eder hau:

«Behin batean, baserritar bat joan zen bere artotza ikusten eta haritz handi baten azpian ezarri zen. Artasorora adi zegoela kalabaza handi bat ikusi zuen arto artetik landara irtenda. Pentsakor zegoen eta badio berekautan: *Nola liteke hau? Arto artean kalabaza-hazi txiki bat erein nuen eta aitu zelako kalabazatzarra atera zaidan. Haritz handi honek ordea, nola dituen baino ez da hain ezkur txikiak?* Mundua gaizki eginda zegoela pentsatzen zegoela, klassk! gerizpe eta babes handia ematen zion haritzaren ezkur bat erori eta buru-buruan jo zuen baserritar filosofoa. *Ene!* pentsatu zuen oraingoan. *Ez, mundua ez dago txarto eginik. Hara, ezkurra egon den to-*

[Negua]



*kian kalabaza handi hori egon izan balitz, ni-
reak egin zuen!»*

Sinbolora berriro joaz, euskaldunontzat, Ipa-
ragirrek immortalizatu zigun Gernikako Arbola
abestitik hauxe: *Eman da zabal zazu munduan
frutua.*

Haritza


Quercus robur (L.)

Quercus pedunculata (Ehrh.)

45 m-ko altuerara iritsi daiteke

Hostogalkorra

Adaburu ireki eta obala



[Udaberria]



*Gauean zerua baltza
diz-diz keinuka izartza,
errekaldean erne zein hazten
bihotzik ez duen **haltza**.*

Haltza ibai ertz eta leku hezeetan erne eta hazten da eta ugari egin ere gainera. Izatez, egur biguna da eta beste zuhaitz batzuk baino gutxiago ustiatu edo erabili da. Baina gure bizitzako beste arlo batzuetan, haltza, zuhaitz esanguratsua izan dugu. Besteak beste hauexek aipatuko ditugu:

Esaera munduan: *Haltzaren ondoan haltza erne*. Haltzaren landare berria zaharraren sustrietatik sortzen da eta pertsona batek bere gurasoengandik hartutako izaera adierazteko errefrau horixe erabiltzen da (gaztelerazko: *De tal palo, tal astilla*).



Abesti munduan: Euskal Herriko Erdi Aroko abestirik famatu eta ezagunetakoa Bereterretxeren khantoria (kantua) dugu eta hasierako hitza Haltza da: *Haltzak ez dū bihotzik...*

Mitologia munduan: Samartintxuk Jentilari zuhurtasunez garia ostu eta gero errota asmatu behar zuen galgarauak ehotzeko. Errotarriak zurezko ardatza behar zuen eta Samartintxuren errotarriari gorozti, haritz, arte eta lizarrezko ardatz-egurrak erre egiten zitzaizkion gogorrak izan arren.

Orduan, Jentilarengana jo zuen ardatzegurrarekin asmatu zuela esanez eta Jentilak erantzun: *ez dut uste asmatuko zenuenik haltz-egurrezko ardatza ipini ez badiozu. Samartintxuk zera erantzun zion: haltzekoa ez diot jarri baina aurrerantzean jarriko diot. Eta halaxe egin zuen eta errota trikitin-traukitin, geratu barik zebilkion. Beste alde batetik, haltz-egurra etxegintzan ere*




erabili da, bentana-marko zein barrukoetarako eta beste gauza askotarako.

Jentilaren erantzunak eta geroagoko etzegintzako erabilerak pentsakor utzi ninduen eta neurekitan esan: Zergatik hain egur biguna hain betebehar garrantzitsurako?

Erantzuna, A. Atutxa Dimakoak eman zidan. Aitu: *Maiatzeko ilargi berrian ebagiz gero haltzak asko aguantatzen du eta sitsak ere ez du jaten*. Beraz, hortxe dako sekretoa.

Beharbada, hortik dator hazeguna izena, hau da, ereitza, landatze, inauste, botatze eta abarretarako egun edo garai egokia adierazten duen eguna, besteak beste, ilargiaren zikloa oso kontutan harturik. Gaur asko aldatu dira gauzak baina lehenago belaunaldiz belaunaldiko ohiturak jarraitzen ziren batez ere naturaren inguruko kontuetan.

[Negua]




Gaur egun, arbola, landare eta abarretarako ezeze, animalien mundura ere luzatu da hazeguna hitza, adibidez, txerri-hiltzearen garaia adierazteko.

Aiko, hauxe da gure herriaren jakintza! Zer ikusi, ha ikasi.

Haltza

Alnus glutinosa (L.)
20 m-ko altuerara iritsi daiteke
Hostogalkorra
Adaburu konikoa





*Haziaren ernaroa
lur onean oparoa,
Euska Herriko gure basoan
beti emankor pagoa.*

Misterioz betatako zuhaitza dugu **pagoa**. Euskal Herriko basoetan ugaria baino ere ugariagoa izan arren, bere izena latinetikakoa da eta euskal izena beharbada misterioan galduko zen. Dena dela, pagoa, bere gerizpe hozkirri eta guzti, euskal gizaki eta animalien laguna dela esango genuke. Hainbat eta hainbat gauzatarako erabili izan dugu, ikatza egosteko, sutarako, altzarietarako, abere mailan bere ezkurra jateko, aizkolariak euren saioetarako eta abar.


Horrexegatik, gure aurrekoek ondo zekiten zer egin pagoekin, besteak beste, inausi bere garaian adar berriak emateko. Pagoa inausi ezik, hazi eta hazi egiten da eta bere zura eta egurra behar iza-



nez gero, zuhaitza osoa bota behar da. Inausiz gero ordea, pagoa beti dago zutik eta emandako adar berrietatik hartzen da beharrizanaren arabera. Ikusi nahi izanez gero, horra hor adibidez Urkiola, Gorbeialdea eta abarretako pagadiak.

Esaera munduan ere erabili izan da pagoa, haritza eta gainetikoen antzera. Esaterako: *Hagarena eman*. Aitu. Gure antzinako baserri asko, zurezkoak izatera, erre egiten ziren sarritan eta orduan, auzoko eta herrikoak alkartu eta *etxe-errea-rena* batzen zen kaltetuari laguntzeko etxe berria egiten. Laguntza era askotakoa izaten zen, dirua, janariak, abereak eta *hagarena*, hau da, etxe berriko zuhaitzak, hots, pagoak, haritzak, lizarrak eta abar, basoan zutik daudela eman, behar duenean bota eta eratzeko.

Mitoetaraino ere heldu da pagoa. Aikomen Gorbeialdean batutako herririk harako mitoetariko bat adibide gisa: Behinola, Jentilak Perutxuren etxekoei artaldea ostu zien. Pobre bizi ziren eta azkenean Perutxu ausartu egin zen eta Jentilaren-




gana joan Gorbeialdeako Itxinan dagoen Supelegorreko kobazulora. Bazekien Jentila indartsua eta gaiztoa zena baina era berean buru gutxikoa. Zerbait asmatu behar zuen eta badiotso Jentilari:

- Nik baietz irabazi edozein norgehiagokan.
- Ezetz irabazi pagoak ipurdi ipurditik ateratzen.
- Bale, bihar goizeko egunsentian Pagomakur-reko pagaduian-erantzun zion Perutxuk.

Heldu zen ordua eta Jentilak hartu besartean eta banan-banan ateratzen zituen pagoak sustrai eta guzti porruak balira bezala. Perutxuk fetxoria hori ikustean, hartu besapean soka bat eta pago gaineetara igoten hasi zen. Jentilak ezin zuen ezer ulertu eta badiotso harriturik:

- Zertan zabilta?
- Zertan ibiliko naiz ba, zu bezala banan-banan barik, pago guztiak sokaz lotu eta denak batera atera behar ditut.



— Ez, mutil, ez ezazu egin holakorik, pagorik gabe ezin bizi izango nintzateke eta nire abereak ezkur faltan gauzeztandu egingo lirateke.

— Horrela nahi baduzu itzuli egin behar didazu guri ostutako artaldea, bestela badakizu!

Eta Jentilak itzuli egin behar izan zion Perutxuri artaldea eta poz pozik joan zen bere baserri-
ra Jentila ahoa zabalik utzita.


Pagoa

Fagus sylvatica (L.)

30 m-ko altuerara iritsi daiteke

Hostogalkorra

Adaburu konikoa






*Basaloreen usaina
gozoa eta bikaina,
janari eta egurtarako
horra hor gure gaztaina.*

Garai batean gaztaina zuhaitz preziatua genuen Euskal Herrian eta gerizpe erosoko gaztainudi ugari eta ederrak zeuden pinua sartu aurretik. Zaharren esanetatik dakigu gaztainari gaisoa sartu zitzaiola eta apurka-apurka pinua nagusitu zela. Izena latinetikakoa da baina aurretik grekoengandik hartua. Euskeraz izen mailegua erabili arren orokorrerako, gaztaina mota bakoitza bere euskal izenez ezagutzen da, adibidez, ataloea, lopetxea, mentugorria, ikola, saldamentua eta abar. Arbola munduan bezala, arbola hitz mailegua dugu baina arbola bakoitzak bere euskal izena du.


Gauza asko ere askotarako eranbiltzen zen gaztaina. Beste zuhaitz batzuk bezala, bere ga-



raian, inausi egiten ziren altura egokian adar zabalak lortzeko.

Etxegintza, ikatz, altzari, zur, egur eta abarretarako erabili izan da gaztaina, egur onekoa delako. Horrezaz gain. Aldi bateko gose garaian janaria ere bazen eta Gabon zein beste ospakizun batzuetan agilando edo oparigaia ere bai. Labur esanda, gaztainak udazkenean batzen ziren kirikino eta guzti. Etxera ere ekarten ziren baina normalean basoan bertan egiten ziren harrizko edo zurezko kirikino-hesiak eta hantxe gorde ondo estalita abereek jan ez egiteko. Kirikinoak usteldu eta barruko garauak aterateko garaia heltzen zenean, kirikino-hesiak zabaldu egiten ziren eta jan ahala etxera ekarri edo zaldu. Jan, egosita zein erreta jaten ziren gaztainak eta ondo gozo gainera.

Beresietako gaztaina berez-erneak zimitzak egiteko erabiltzen zituzten batez ere otzaragileek. Gaztaina enbor gazteak ebaki, uretan beratzen ipini, labean berotu, zimitzak atera, landu eta gero otzara, zaran, asto-otzara, sila-ipurdi eta abarretarako erabiltzen ziren.




Gaztainondo batzuk harrak joten zituen eta harjo horrek barrua jan egiten zion eta ihartu egiten ziren. Holakoetan, ikatza edo ohol edo sutarako erabiltzeaz gain, erleak ipintzeko ere erabiltzen ziren, etxe inguru edo ganbaretako leihoetan. Barrua garbitu eta zulo horretan sartzen zuten erlume berria eta ezti gozoa lortu.

Mitologian sartuz, behin batean, Samartintxuk zerra edo trontzea lortzeko, Jentilarengana jo zuen eta zuhurtasun guztiz esan zion:

- Asmatu dut zerra edo trontzea egitea!
- Ez dut uste gaztainaren orriari so egin ez badiozu —erantzun zion Jentilak barre zantzoka.
- Ondo da, herrirantzean gaztainuditik pasatzerakoan gaztaina orria hartu eta harexen itxurara egingo dut egin beharrekoa.

Horrelaxe lortu omen zuen Samartintxuk zerra edo trontzea egitea gaztaina orriaren haginadurari esker. Gero Jentila haserretu eta gauez Samartintxuren trontzeari haginak guztiak okertu zizkion.

[Negua]



Hurrengo goizean Samartintxu eta, trontzea frogatzera joatekotan zeudela Jentilaren mantzinkeriaz ohartu ziren baina badaezpada frogatzera joan ziren gaztainondo harjo bat ebakitzeko asmoz eta ene! Trontzeak hagin okertuekin askoz hobeto ebakiten zuela ikusi zuten. Zortek berez etorri behar duela dio esaerak eta halaxe gertatu zitzaion Samartintxuri.


Gaztainondo

Castanea sativa (L.)

30 m-ko altuerara iritsi daiteke

Hostogalkorra

Adaburu zabal eta borobildua





*Baso-zuhaitzak egurra
pago-haritzak ezkurra,
gizakiaren etxe ondoan
hurritza eta **intxaurra**.*

Zuhaitz asko eta ederren artean, batzuk basokoak dira eta beste batzuk baserri ingurukoak. Baserri inguruetan fruta-arbolak dira nagusi, garaian garaiko fruituak lortzeko. Euren artean intxaurra izan da, beharbada, garrantzitsuenetakoa. Intxaurrondo batzuk baserriarenak dira baina beste batzuk oilalurretakoak, hots, auzuneko edozeinenak, lur hori ez delako inorena, denena baizik.

Intxaurra udagoienera heltzen da. Garuari mintza arrankaldu egiten zaio eta intxaur garauak jauzi ahala edo botarazita batu egiten dira, norbereak norberak eta oilalurretakoak lehenengo hartzen dituenak. Garua erortze horretatik etorri da antza herri esaera hau ere: *Ez egin lorik intxaurpean.*



Lehenago, intxaurrak, gaztaina eta hurren antzera, batu eta gorde egiten ziren, esaterako, Gabonetan intxaursaltsa egiteko edo postre bezala jateko, Urtebarri, Apalazio edo Santa Agedatan agilandoak emateko, izan ere, antzina ez zegoen gaur beste gozoki ume eta gainetikoei oparitzeko. Gogora dezagun agilando eskatzeko modu bat, Apalazio abestiaren azkena:

*Apalazio miri montaña
hiru intxaur eta lau gaztaña*

Intxaurra, jateko ezeze, jolasteko ere arabiltzen zen antzina. Mamia jan eta gero, azal erdikinarekin txepetxa egiten zen eta txepetx-hotsa atera.

Intxaurrondoaren egurra altzaritarako ere erabiltzen da eta gutxi dagoelako edo, ez da edozelakoa, ona eta garezia baino.

Mitoan ere sartu da intxaurrondoa eta bat aipatzearren aikomen Baltzolako Sugearena:


«Behin batean anaia bi zeuden artzain Baltzolako kobazuloaren atakan. Bapatean, sugea agertu



zitzaien eta anaia nagusiak holakorik egin ez egiteko agindu arren, txikiak hartu makila, jo eta buztana ebaki zion. Sugea kobazuloan estaldu zen. Gerora, anaia nagusia gerrara joan zen, urrun. Halako batean bukatu zen gerra eta etxerantz burumakur zetorrela gizon berezi bat agertu zitzaion eta esan: *Etxera joan nahi duzu ezta? Ba, aiko, gogoratzen duzu behin zer esan zenion zure anaia txikiari han Baltzolan? Ba, aitu, nire eskuan falta zaizan atzamar txiki hau, zure anaiak ebagitako buztan punta da. Deabrua naiz eta airean eramango zaitut Baltzolaraino.* Halaxe egin zuen. Baltzolarara heltzean, kobazulora eramane eta gauza bi eman zizkion: ure gorria beretzat eta gerriko gorri bat anaia txikiarentzat.

Jarraian etxera joan eta ateak jo zituen. Denak ikeratu ziren eta badiotso anaiari: *Gerriko gorri hau eman dit Deabruak zuretzat, eta anaiak erantzun: Nik ez dut behar gerrikorik, joan eta lotu iezaiozu oilalurreko intxaurrondoari.* Halaxe egin zuen, baina gerriko gorria lotuz batera, deabruak intxaurrondoa sustraietatik atera eta ai-


[Negua]



rean eraman zuen gora eta gora hodeietan galdu arte. Denak ikaratu ziren eta harrezkero ez zuten tratu gehiagorik izan deabruarekin, badaezpada. Hau kontatu duena hemen dago baina ikusi duena batek badaki!

Intxaurrondo

Juglans regia (L.)
30 m-ko altuerara iritsi daiteke
Hostogalkorra
Adaburu borobildu eta zabala



Bizkaia

Gaztainadia

Haltzadia

Hariztia

Pagadia

Bezi auzoa
(Sopuerta)

Buia auzoa
(Bilbao)

Orozko - Garrastatxu

Lendoño auzoa
(Urduña)

